



## Lehengo lepotik burua

**Azken urteetan bezala, Donostiako arraun elkarteak estu eta larri dabilta koadrilak osatzeko. Ur-Kirolakek eta Fortunak nola edo hala trainerua aterako dutela dirudi. Donostia Arraunekoak, aldiz, aurtentzako trainerurik ez ateratzea aztertzen ari dira.**

Raul Perez

**G**auzak asko aldatzen ez badira, behintzat, aurtengo udan ez dugu *Lugañene* ontzia lehian ikusiko. Donostia Arrauneko kide Joseba Garmendiak azaldu digunez, "arraunlari gutxi ditugu

eta denboraldi eskasa egin baino, nahiago dugu harrobiarekin lan egin. Ea datorren urterako talde lehiakorra osatzea lortzen dugun". Hasieran *Lugañene*-n aritzekoak ziren hainbat arraunlari Zumaian ari dira egun entrenatzen eta Donostia Arraunekoak trainerurik atera ezean, Zumaiaiko utzian ariko dira denboraldi honetan, ziur asko. Joan den urtean ere Donostia Arraun-ekoek lanak izan zituzten taldea osatzeko. Dena dela, donostiarrek Irungo Santiagotarrak-ekin atera zuten trainerua. Aurtentzako ordea, Santiagotarrak-ek bere kabuz aterako du trainerua. Zailtasunak zailtasun, Joseba Garmendiak Kontxan parte hartzeko itxaropenari eutsi nahi dio: "Euskal Ligan parte hartzeko, ekainean eman behar da izena, eta berandu gabiltza horretarako. Kontxako kanporaketa, aldiz, abuztuan jokatuko da eta arrauna utzi duten mutil batzuk elkartera itzuliko balira, agian, Kontxarako, trainerua osatuko genuke".

### Ur Kirolak eta Fortuna lanean

Ur-Kirolak-ekoek azaroan ekin zioten entrenatzeari. Aurtengo denboraldiari begira, arraunlari eta entrenatzaile Unai Luzuriagak esan digunez, zaila izango du te joan den urtean bezain ondo ibiltzea,

### Bi liga aurtentzako?

Martxoan hasieran Euskal Herriko Arraun Federazioak egindako batzarrean ika-mika izan zen nagusi, hainbat gai liskar iturri izan baitziren gipuzkoar eta kantabriarren eta bizkaitarren artean. Eztabaida horiek direla eta, Kantabriako eta Galiziako traineruek Kantauriko Liga osatzeari ekin diote. Gipuzkoako traineruek ere gorpuzten ari den liga berriari parte hartzeko gonbitea jaso dute, baina ez dirudi hainbat elkartzeko asmorik dutenik. Itxura guztien arabera, beraz, aurtentzako bi liga jokatuko dira: batetik, Gipuzkoako eta Bizkaitako traineruek Euskal Ligan parte hartuko dute eta bestetik, kantabriarrak eta galziarrak Kantauriko Ligan ariko dira.

batez ere lau arraunlarik taldea utzi dute-lako: "17 bat lagunek osatzen dugu koadrila. Bi lagun berri traineruan sartu diren eta iaiz gurekin aritutako lau errumaniarrek taldean jarraitzen duten arren, justu samar ibiliko gara".

Fortuna, bi urtez trainerurik atera gabe egon ostean, iaiz lehiatu zen berriro ere Kantauri itsasoko hainbat estropadatan. Aurtentzako joan den urteko emaitzak hobetzea espero dute Fortunakoek: "Iaz mutil askok debuta egin zuten arraunean eta aurtentzako badute eskarmentu pixka bat. Horretaz baliatu behar dugu emaitza hobea lortzeko. Dena dela, gure mugez jabetzen gara, izan ere, inoiz arraun egin ez duten zenbait mutil eta jubeniletatik etorritako batzuk ere badira aurtentzako traineruan", dio Fortunako kide Iñigo Ruiz de Galarretak.

#### Zorionak Juanxo!

Juanxo Kokak eta Ruben Belokik Eskuz Binakako Pilotari Txapelketaren finala irabazi zuten joan den igandean, Atano III. pilotalekuan. Koka eta Beloki 22-15 nagusitu zitzaizkien Olaizola II. ari eta Paskuali. Hauxe izan da Juanxo Kokak Lehen Mailan eskuratutako lehen txapela. Altxatarrak lekukoa hartu dio Mikel Unanueri, joan den igandera arte aňorgatarra baitzen Eskuz Binakako

Txapelketa irabazitako azken pilotari donostiarra. Unanue 1998an nagusitu zen Errasti bikotekide zuela.

